

## Han eta hemen, bidaiari

Alberto Ibaiondo, solasean ▶ 2-3



# Ernio lasterketako irabazlea Fernando Etxegarai izan da

**MARKA** ▶ Lau korrikalarik hautsi dute Garinek aurreko edizioan egindakoa; laugarren heldu zen zizurkildarra; emakumezkoetan, Nerea Amilibia izan da garaile ▶ 7



Fernando Etxegarai, probako irabazlea, helmugan sartzen. I. GARCIA



## Askotariko ekitaldiekin, egun osoko jai giroa izan dute Eskolen 6. Topaketan

**LEITZA** ▶ Nafarroako lau herritako —Goizueta, Arano, Areso eta Leitza— eskolek bat eginik, Eskolen 6. Topaketa egin zuten atzo Leitza, eta askotariko ekitaldiak eginez, egun osoko jai giroaz gozatzeko aukera izan zuten haurrek eta haien gurasoek. Hasi joko kooperatiboetatik —argazkian— eta Leitzako *Ingurutxo* dantzatzeraino... bazkaria, abesbatzen eta kantarien emanaldiak, txokolate jatea eta beste egin zuten elkarrekin. IÑIGO TERRADILLOS ▶ 6

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

## A-15 autobideak hamar urte bete dituela-eta iritzi mordoa jaso du HITZAK; aldekoak eta aurkakoak

Andoain eta Irurtzun, Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen autobiarekin nabarmen gutxitu da NA-130eko trafikoa ▶ 4-5



UZTURRETIK ▶  
EKAIN GARMENDIAKafkaren  
panpina


**B**ada Kafka eta ume bati buruzko istorio nahiko ezagun bat. Hirian paseatzen zebilen batean, negarrez ari zen ume batekin egin omen zuten topo Kafkak. Ea zer gertatu zitzaion galdetu eta, panpina galdu zuela erantzun zion haurrak. Negarrik ez egiteko, esan zion Kafkak, lehenxeago topo egin zuela panpinarekin, eta atzerrira bidaia egitera zihoala esan ziola. Barkatzeko agurtu ez izana, presaka zebilela; baina ez egoteko triste, izango zuela haren berririk. Izan ere, Kafkaren bitartez, panpinak astero-astero gutun bat bidaliko zion. Hala, egun hartatik aurrera, hitzordua egiten zuen astero Kafkak haurrarekin, eta panpinak atzerrian bizi zituen abenturak kontatzen zituzten eskuittzak irakurtzen zizkion.

Istoria literaturari buruzko metafora da: liburuak (eta berdin pelikulak, abestiak edo koadroak) gezurrezko mundu batetik iristen zaizkigun eskuittzak dira. Panpinaren gutunek mundu berri baten atea irekitzen dizkiote haurrari, merezi duen istorio batek ezezagunerako bideak irekitzen dizkigun bezala. Are gehiago: eskuittzak gertuko mundua bera ere eraldatzen diote haurrari: bidaiatu eta eskuittzak idazten dituzten panpinak badaudela irakasten diote. Modu berean, egiaz ukitzen gaituen kontaktuz gure inguru kolokan jartzen digun hori izan ohi da.

Ez dut uste egun kontatzen dizkiguten istorio gehienek, pelikulek eta liburuek, ezer kolokan jartzen digutenik. Kolokan sentiaraziko gaituzten kontaktuzunak baino nahiago omen ditugu egunerokotasunetik aldegiten laguntzen diguten ipuinak. Horiek atea irekitzen dituzte bai, baina ez mundu ezezagunetara bidaia egiteko, ezagunegi dugun mundu batetik ihes egiteko baizik. Badirudi, panpinek alde egin dutela ikustean, nahiago izan dugula haietaz ahaztea panpin berriak bilatzea baino.

Baina nik neurearekin jarraituko dut: egiazko kontaktuzunak, merezi dutenak, kolokan uzten zaituzten horiek dira. Besteak... besteak anestesiatu dira, ez besterik.

## KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



## ALBERTO IBAIONDO ▶ MUNDU OSOAN ZEHAR IBILIA

«Bidaiatzeko, zure  
buruarekin ondo egon behar  
duzu eta sentikorra izan»

Europa, Afrika, Asia eta Amerikako leku ugari ezagutu ditu, oporretan edo lanean; «txori berezia» bezala definitzen du bere burua, besteak errespetatuz eta errespetua eskatuz

JOXEMI SAIZAR

Hizketan hasi ondoren zalantza izan du elkarrizketarekin jarraitu ala ez. Ez du oso gustuko komunikabideetan agertzea. Kafetegri bateko terrazan eserita, hitzjariorra erraza du, euskara trakets samarrean, egia esanda. Hemengo eta kanpoko jende asko ezagutzen du. Apataerrek zuen tailerrean "Berehala nator" oharra jarrita alde egin eta sei hilabete pasatu zituen Afrikan. Bolikosta, Costa Rica, Thailandia, Nikaragua, Burkina Faso, Kanputxea, Peru, Kenya... ezagutu ditu.

**Nondik zator? Nora zoaz?**  
Manresatik etorri berria naiz, aluminio fabrika batean ikas-ten aritu naiz datorren astean

Miamira noalako kruzeroak egiten dituzten luxuzko bi transatlantikotan hamakak konpontzera eta mantentua egitera, batean 1.600 eta bestean 1.200. Baina horren aurretik, bihar [osteguna] Copenhagera noa. Eta laster agian Singapurera joan beharko dut.

**Lanera ala oporretara izaten dira zure bidaiak?**

Ez diruagatik, ez lanagatik. Dirua ez galtzea bilatzen dut. Beste batzuk segituan orduze eta soldataz galdetzen dute. Nik ez. Leku eta giro berriak ezagutzea bilatzen dut.

**Nola hasten da bidai mundu horretan lanean?**

Lagunen bidez. Nairobitarrako Angel Ortiz, Josu Iztueta eta Manuel Mokoroarekin bidai

batzuk egin nituen. Txofer, mekaniko... denetik pixka bat. Oso jende noblea eta profesionala. Batek enkargu bat eskatzen dizu, besteak mesede bat. Miamikoa Bartzelonako lagun baten bidez atera zait.

**Zein dira zure ikasketak?**

Gutxi. Gazterik hasi nintzen lanean, mekanikari bezala. Duela 30 urte itsasuntzi motorren espezialista ikasi nuen Hondarribian, baina inoiz ez dut horretan lan egin.

**Zein da gehien egiten duzun lana?**

Hemengo kooperatibekin azokak eta erakusketak montatzera eta desmontatzera joan, gauzak garraiatu... Errementaria naizela esaten dut beti, ez mekanikoa. Basamortuaren er-

dian kate bat izorratzen bada, soka batekin edo dagoenarekin, moldatu behar da.

**Mendia da guztiaren abiapuntua.**

Bai, lehen espedizioa Oargi mendia elkartetik egin genuen, Tanzaniara, Baltian mendira. Gero Perura joan ginen, Alpaymayora. Gero Kuba, Dominikar Errepublikara, Costa Rica, Argentinara... izan naiz. Orain mendia gutxiago egiten dut.

**Asko aldatu al da bidaiatzeko modua?**

Asko. Arazoak konpontzeko eta gaintzeko borondatearekin joaten naiz beti. Baina jendea orain presaka eta tentsio handiagoarekin joaten da. Segituan hasten dira kalte-ordainak eskatzen. Lehen lasaigo ibiltzen ginen eta harreman hobe izaten zen txoferra eta jendearen artean.

**Arazo berezirik izan al duzu?**

Ez. Lagun batzuk bai, Golkoko gerran. Mugetan eta ohiko arazoak izaten dira. Burkina-Fasoko mugan militar batzuk ez zieten holandar batzuei pasatzen. Hamar egun zeramaten. Pailazoarena egiten hasten zen militarren burua. Kalashinov bat zuen. Txalo egin eta txanpon batzuk emanez konpondu genuen. Askotan diru pixka batekin gauza asko konpontzen dira. Ez naiz kopuru handiez edo ustelkeria kasuez ari.

IRITZIA ▶ ITXAROPENA URKIOLA (TOLOSAKO UDALEKO GAZTERIA ZINEGOTZIA)

## Gazteriaren alorra Tolosan

**2**003. urtean egin zen Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratze Departamenduko Gazteria Zerbitzuaren arteko elkarlanaren nondik norakoak zehazteko lehen bilera.

80. hamarkadako gazteria politikaren eztanda galtzen joan zen hartan, Tolosan proiektu asko jarri ziren martxan, baina abian jarritako proiektuetatik Gazte Informazio Bulegoa da bizirik dirauen ia bakarra orain dela gutxi arte.

Egoera honetatik abiatuta Udalar Foru Aldundiarri laguntza tekniko eskatu zion, 'Tolosan Gazteria Politikaren inguruko ildo estrategikoak martxan jartzeko'.

Tolosako Udalarri egindako lan proposamenaren helburu nagusia haur, nerabe eta gazteen esparruan era koordinatu batean esku hartzeko oinarriak ezarzea izan zen.

Oinarri hauek, inongo zalantzarik gabe, ondorengo arrazoiengatik daude ezarrita:

- Gazteria zerbitzua indartu delako eta honen elementu estrategikoak definitu direlako.

- Udal sail desberdinen arteko lankidetzarako oinarriak jarrita daudelako.

Udaleko teknikarien artean elkarlana bultzatzen da. Gazteriatik abian jartzen diren ekintza asko eta askok, kirolarekin, ingurumenarekin... zerikusia dute. Beraz horrelako ekintzak aurrera eramateko gure arteko elkarlana ezinbestekoa da. Gazteriatik departamendu guztietik duela zerikusia esan genezake.

- Aisi hezitzaile programa. Nerabeentzako, 13-17 urte bitarteko gazteentzako, ekintza espezifikoak era planifikatu batean martxan jarri direlako.

2004 urteko azaroan jarri genuen martxan Kultur Etxeko areto nagusian asteburuetako aisi eskaintza. Hain zuzen 13-17 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa. Zenbait irteera, ekintza berezi eta abar egin dira. Momentu honetan udari begira Uda Gaztea antolatzen gabilta.

- Informazio programa. Tolosako Gazte Informazio Bulegoak, Kultur Etxean dauka bere bulegoa.

Aurten Euskadiko Informazio Sarearen konexioa egin den arren (k21 aplikazioa) bertan ez da ia aplikazioaren erabilpenik egiten. Batetik erabilpenaren konplexutasunagatik eta bestetik Gazte

Informazio Bulegoaren bezero kopurua oso baxua delako. Gazte Informazio Bulegoaren proiektua amaitu eta orain behar bezalako aldaketak egin ostean zerbitzua modu osatu batean eskaintzen ahaleginduko gara, zerbitzuaz gain udalerrian informazio antena eta informazio tabloiak ezarriaz.

- Sustapen programa. Gazte intereseko elkartei gazteria politiketan parte hartzeko aukera emateko elkarteak sustatzeko beste modu bat da. Tolosako Gaztegunea dugu adibide garbienteko bat sustapen kontzeptua hobeto ulertu ahal izateko. Gaztegunea egun, aisialdi taldeetako partaideek, kale hezitzaileek, Udaleko teknikariek eta zinegotziek osatzen dugu. Bertan gazteria alorreko gaiak proposatu eta lantzen dira. Orain arte bertatik proposatu diren ekintzak honakoak izan dira beste batzuren artean:

a) Pako eguna. Ekintza hau Santa Maria plazan urtero egiten den jaia da. Aurtean ekainaren 11n izango da. Egun horretan, herriko haur eta gazteak Santa Marian biltzen dira eta ekintza bereziak prestatzen dira beraientzako. Aurtengoa ere programatzen gabilta.

Udaleko zenbait departamenduekin elkarlanean.

b) Hitzaldi zikloak. Aurten iada II. Hitzaldi Zikloak antolatuko dira Gazteria Saitetik. Gaiak gazteen interesekoak izaten dira: emantzipazioa, etxebizitza, enplegua... Eta beste batzuk.

Une honetan eta Foru Aldundiak ezartzen dituen lan ildoez gain Gazteria Saitetik abian dira beste zenbait proiektu:

- *Hi, gazte!* aldizkariaren koordinazioa. Gazteei zuzendutako aldizkaria. Bertan gazte interesekoak diren gaiak jorratzen dira.

- Gazteen intereseko ekintzak aurrera ateratzeko laguntza eskaintzea: Tolosa Kup, graffiti lehiaketa sanjoanetan, Artoa'05 proiektua. Gazteen proposamenak entzun eta bideratu.

- Gazteen intereseko antzerkiak eta ekitaldiak antolatu: *Zapaldu marra* antzezlan, adibidez.

- Ikastetxeekin harremana edukitzea eta bertatik sortzen diren proposamenak entzutea. Asteburuetako Topagunea 13-17 urte arteko gazteei zuzenduta diona arren errealitatean 13-15 urteko gazteak dira bertako erabiltzaileak, beraz, 13-17 urte bitartekoekin gazte foro batzuk antolatu ditugu gazteen nahiak eta proposamenak entzun eta bideratu ahal izateko.

## PERTSONALA ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1946ko ekainean ▶ Ikasketa handirik gabe, gazte hasi zen lanean ▶ Mekanikari izan zen Uzturre, Donostiako bat, Davana eta bere garajeetan ▶ Autonomoa azken 28 urteotan ▶ Kontinente guztietan asko ibilia, Ozeanian izan ezik ▶

**Zenbat kilometro urtean?** 200.000 furgonetan, hegazkinez eta bestela auskalo. **Leku bat?** Aljeria, Norvegia... Askok. **Zein falta zaizu?** Ozeania. **Erreferente bat?** Nairobitarrako lagunak.

## LANA

«Batzuk segituan orduetz eta soldataz galdetzen dute; nik ez, leku eta giro berriak ezagutzea bilatzen dut»



## Gustuko leku bat?

Lehen bidaia Nairobitarrako lagunekin Aljeriara egin nuen, Hoggar basamortuan ilunabarra urrian... Norvegiako Nordkapp da beste bat. Leku asko daude. Garrantzitsuena ez da lekua, jendearekin duzun harremana eta zu nola zauden baizik. Bidaiatzeko zure buruarekin ondo egon behar duzu eta sentikortasun handia izan. Zu ondo baldin bazaude, besteekin ere hobeto zaudete. Orain egoera horretan nago.

## Zergatik dago hainbeste bidaiari Tolosaldean?

Kirol mailan ere mugimendu handia dago: iraupen eskian,

mendi giroan... Jende berezia izan da, aitzindaria.

## Politika gertutik jarraitzen al duzu?

Garai batean dezente sartuta ibili nintzen, baina zatiketa handia izan zen familietan, lagun artean... Frustrazioa izan zen. Bizitzaren etapak dira. Errespetoa lortu da. Pertsonengan ideiak errespetatzea bilatzen dut. Bakoitzak bere askatasuna behar du eta horretarako besteek ere askatasuna behar dute.

## Definitu zure burua.

Txori berezia naiz. Besteena errespetatuz, nire bizitza errespetatzea nahi dut.



AUTOBIA >

Hamar urteren ondoren...

Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen dituen A-15 autobiki hamargarren urtea bete berri du; urruti geratu dira NA-130 etengabe zeharkatzen zireneko garaiak

MADDI SOREA

Badrira hamar urte Gipuzkoa eta Nafarroa batzen dituen A-15 autobia eraldi zutela. Irurtzun eta Andoain batzen dituen A-15ak hamargarren urteruena bete du...



Andoain eta Irurtzun batzen dituen A-15 erreperiako sarrera, Berastegi pareran. MADDI SOREA

C. AGIRREBARRENA

JOSE MARI OSTIUA (LEIZARITZA)

«Lasaitasuna eta isilasuna lortu ditugu»

«Autobia egin zutenetik alde-lake ezberdinek jasan ditu herriak, baina herritarrok ere Batetik lasaitasuna eta isilasuna lortu ditugu...»

BERNAR ZABALETA

ARAUNKIDEGA JATEZEA (LEITZA)

«Etebizitzen prezio asko igo da Leitza»

«Autobiki ekarri duen alde positiboi dagokionez, Leitza orain duen komunikazio ona aipatuko nuke...»

ANA OTERMIN

ONDA DENDA (BERASTEGI)

«Jendea herritik kanpora joan da»

«Autobiaten alderdi onena Berastegitik Donostiarekin duen komunikazio ona da...»

iragarki laburrak >

Kutxa eta bankeak, Lekak libur. Sartze laster, Informa, 943 43 41 27. Postal, geltzerak, osalariek, mantentzeak...

da, baita Donostialdeak ere. Askok kotxeak guzki aparantzak dituzte eta izan dugu arazoren bat edo beste kontu horengatik...

RAQUEL IBÁÑEZ

IGARONDO OENDA ELKARTEA (TOLOSA)

«Aparakeleu handi bat litzateke irtenbidea»

«Autobia egin zutenetik argi dago Tolosa baztertu gertu dela; izan ere, Leitza, Berastegi eta inguruko herrietan Donostia etorri den bitartean...»

MIKEL BARAIBAR > ARESKO ALKATEA

«Nafarroako Gobernua zorretan dago oraindik Areso herriarekin eta herritarrekin»

M. Soreo > Mikel Baraibar aresoarra da eta bertako alkate da gainera duela bi urte zotzot. Ezagun dugu beraz, autobiki eragin duen alde-lake...

Autobiki eragindako zein ondorio negatibo azpimarratu zenueke?

«Gogoratzen da Nafarroako Gobernua zorretan dagoela Areso herriarekin eta baita bertako herritarrekin ere...»



JAKUE ASTIBIA

JONAN FERNANDEZ > LURRALDEKO KOORDINAZIALE OHIA

«Hasierako proiektu ofiziala baino hobeia da eta gizartearentzat onuragarria da akordioagatik»

Joselyn Salzar > Jonan Fernandez tolosarra Foru Aldundiako proposatutako autobiki proiektuaren aurka sartu zen...

Nola ibusten duzu Leitzarango autobiaten afera, hamar urte bete direnean?

Gaur egun hiri hausnarketa egin behar dela iruditzen zait. Lehenia, denok ikusaputu kritiko eta autokritikoki begiratu behar digutela proiektuari bur...

dutezela ikusteak. Bigarrena, azkenean egin zen autobiki agian onena ez dela izan...



J. SALZAR

Autobiki eragindako zein ondorio negatibo azpimarratu zenueke? Gogoratzen da Nafarroako Gobernua zorretan dagoela...

Liburtegirik, informatika. Erakunde publikoentzat hurrengo deialdiak. Informazioa don, 943 43 41 27. Udazkarrak. 25 zuzen libur...

Administrari laguntzaileak.

Sartze laster. Hernani, Usurbil, Beasain, Alzo, Bergara, Soraleze, Mutlu, Ziurki, Mendon, Arreit...



## Emakumearen Mundu Martxarekin bat eginez, eskubideak aldarrikatu

**TOLOSA** ▶ 2005 Emakumeen Mundu Martxaren inguruko ekitaldiak egin zituzten atzo Tolosan. Izan ere, aurki Mundu Martxaren lekukoak eskualdetik igaroko da. Goizean mahai informatiboa jarri zuten Trianguloan —argazkian—. Arratsaldean triki poteoa egin zuten eta inkestak banatu zituzten hainbat tabernatan, «batez ere emakumearen eskubideen inguruan hausnarketa bultzarazteko». Festa giroan jarraitu zuten afari-merienda herrikoia erekin. I. GARCIA



## Giro bikaina atzo Kultur Astearen baitan egindako ekitaldietan

**IRURA** ▶ Kultur Asteak aurrera darrai. Atzo xake txapelketa egin zuten goizean. Arratsaldean haurrentzako jolasak eta antzerkia izan ziren Loatzo plaza inguruan. Aizpurua jatetxean, elkarte eta tabernen arteko XII. Mus Txapelketa jokatu zuten, eta Enara taberna izan zen irabazlea; atzetik geratu ziren Diadeku, Gazte alaiak eta Xake elkarteak. Jende ugari inguratu zen eta giro bikaina nagusitu zen. Gaur, baserriarren eguna izaki, beraiei zuzendutako ekitaldiak izango dira. I. TERRADILLOS

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Egun osoko jai giroa izan da 6. Topaketan

Gaztetxo eta gurasoek askotariko ekitaldiak izan zituzten

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo haur, guraso eta eskolen festa polita izan zuten Leitza, izan ere, Goizueta, Arano, Leitzeta eta Aresoko eskolak bat eginik, 6. Topaketa egin zuten. Goiz eta arratsalde, egitarau zabala izan zuten, eta haurrak eta gurasoak jai giroan elkartuz Leitza ezagutzeko aukera izan zuten. Zonaldeko Prebentzio Programak eta tokatzen den herriko guraso elkarteak antolatzen dute topaketa.

Goizean Leitzako plazan bildu ziren gaztetxoak gurasoekin, joko kooperatiboak baitzituzten zain bertan. Taldeka banaturik askotariko jolasak egin zituzten. Eskola eta herri desberdinetakoak bildurik zeuden, eta elkar ezagutzen ez zutenek, bata bestearen izenak ikasteko jokoak egin zituzten

lehendabizi. Ondoren egin zuten jokoan, parte-hartzaileei karta bat banatu zitzaion. Horrek ertz bakoitzean zuen kolorearen arabera bere bikotekidea aurkitu behar zuten. Noski, taldeko besteren batek izango zuen aurkitu beharrek, eta hau topatzeko keinuz baliatu behar ziren gaztetxoak eta gurasoak.

Beste talde batean, begiak estalirik jarri zituzten antolatzaleek jolasean ari zirenak. Bi multzotan banatu zituzten eta multzo bakoitzeko kideek animalia bat irudikatu behar zuten. Animalia horren garrasia eginez beste multzoko bikotea topatu behar zuten joko horretan.

Txikienek beste talde bat osatu zuten. Hauek pilotak edo erdian zulo bat zuten oihal handi bat bezalako materiala era-

biliz aritu ziren jolasean elkar hobeto ezagutzeko helburuarekin, betiere.

Bestalde, plazan bertan ikusgai izan ziren egun osoan zehar ikastetxe guztietako ikasleek aste osoan zehar egindako marrazkiak. Atzo egindako topaketa ardatz hartuta burutu zituzten ikasleek marrazkiak.

Behin jokoak amaituta kalejira izan zuten Goizuetako Zagi-dantza eta Leitzako trikitilariekin, eta ondoren, Aresoko dantzari txikiak aritu ziren. Aurrera elkartean bapo jan ondoren, umeen saioak izan ziren udal txean. Goizuetako eskolako kantariak eta Leitzako Asketa Txiki abesbatza aritu ziren eta *Bizi alai* antzerkia izan zen ikusgai. Txokolatea hartzeko aukera izan zuten ondoren, eta Leitzako *Ingurutxo*a dantzatzuz eman zioten amaiera egunari.



Elkarren izena ezagutzeko jokoak egin zituzten. I. TERRADILLOS



Txikienek oihal handi batekin aritu ziren jolasean gurasoekin. I.T.



**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIAK**

▶ 112

- Alegialdea. Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- Asteasu. Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
- Bidegoian. Medikua: 68 11 34
- Ibarralde. Osasun eb: 672411
- Ikaztegjeta. Medikua: 65 33 29
- Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza. Osasun z.: 948 510800
- Lizartza. Medikua: 68 20 77
- Tolosa.
- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.**
- Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**GARRIAIOAK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**KOMUNIKABIDEAK**

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre irratia: 943 69 80 38
- ▶ Karrape irratia: 948 61 09 14

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Gaur.** Azpiroz, M.L. Amaroz auzunea, 9 (Tolosa), 67 51 18.
- Plaza, M. Elbarren, 36 (Leitza), 112.
- Bihar.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3 (Ibarra), 943 67 09 15.
- Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza), 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

- Publizitate.** 661 67 88 18. tolosaldean\_publi@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaldea.** 687 41 00 22. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarralde.** 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitza.** 687 41 01 18. leitza@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Etxebizitza.** Beasainen ebeya salgai. Deitu: 619 601 111.

**KIROLA ▶**

# Lau korrikalarik hautsi dute Ernio lasterketako marka

Fernando Etxegarai beratarrak irabazi zuen gizonezkoetan; Zizurkilen bizi den Nerea Amilibia izan zen lehen emakumea



Lehen postuetan sailkatu diren korrikalariak. I.GARCIA



Juan Mari Garin eta Nerea Amilibia, eskualdeko lehenengoak. I.GARCIA

**SAILKAPENA ▶**

**GIZONEZKOAK**

1. Fernando Etxegarai	1.26.52
2. Ionut Zinca	1.26.59
3. Zuhaitz Ezpeleta	1.27.05

**ESKUALDEKOAK**

<b>Gizonezkoak.</b>	
1. Juan Mari Garin (4)*	1.28.36
2. Jose Manuel Otermin (5)	1.33.29
3. Patxi Esnaola (11)	1.37.52

**EMAKUMEZKOAK**

1. Nerea Amilibia	1.53.59
2. Marta Garaia	2.06.16
3. Loli Benitez	2.13.32

**Emakumezkoak.**

1. Nerea Amilibia (1)	1.53.59
-----------------------	---------

\*Sailkapen orokorreko postuak

**IMANOL GARCIA**

Orain bi urte Juan Mari Garinek egindako 1:30:14 marka hautsi da. Baina ez behin bakarrik, lau korrikalarik hobetu baitute, tartean Garin berak, aurretan laugarren iritsi denak. Fernando Etxegarai beratarra izan zen irabazlea, marka 3 minutu eta 22 segunduren hobetuz. Hamairu segunduren baitan sartu ziren bigarrena, jatorriz errumaniarra den eta Gasteizen bizi den Ionut Zinca, eta hirugarrena, Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra. Emakumezkoetan ere marka hautsi zen. Nerea Amilibiak ezarri zuen berria, jaiotzez aiarra eta egun Zizurkilen bizi den korrikalaria.

Lasterketa oso estua izan zen gizonezkoetan. Juan Mari Garinek denei aurre hartu zien igueran eta Ernioko puntara lehena iritsi zen. Maldan beheara, baina, hiru korrikalarik aurreratu zuten eta hirurek bateratsu egin zuten Tolosarako bidea. Jaitsierako azken zatian gehiago arriskatu zuen Fernando Etxegarai beratarrak eta berak lortu zuen garaipena. Lehen postuetan iritsitako korrikalariak bat egin zuten esatean ibilbidea ederra zela, eta baita ere lokatzagatik arriskua handia zela.

HITZAK eskualdeko lehen bi korrikalariak garaikur bana banatu zuten: Juan Mari Garini gizonezkoetan eta Nerea Amilibiari emakumezkoetan. Bestalde, parte-hartzaile guztiei *Euskal Herria* aldizkariak Erniori buruz hitz egiten duen alea oparitu zien.

**AZOKA ▶**

«Oso egun polita izan genuen atzo azoka gunean»

Ernio lasterketak giroa alaitzen lagundu zuela nabarmendu dute saltzaileek

**PABLO ALBERDI**

«Oso egun polita izan genuen atzo azokan». Ernio lasterketak giroa alaitzen lagundu zuela nabarmendu dute saltzaileek, eta produktu eskaintza handia izateak ere zerikusia izan zuen erosleak gerturatzeko. Fruta eta barazkien artean aurtengo lehen marrubiak eta azaburuak ziren salgai; perretxiko zerrrenda ere handia izan zen.

**ATZOKO AZOKA ▶**

Bertakoak	merk.	gares.
Ahatea	2,50	-
Antzarra	11,00	12,00
Tomatea	3,00	4,50
Kalabaza	1,50	3,00
Irasagarra	3,00	6,00
Behi gazta	7,00	7,50

**Ekologikoak**

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Letua	1,00	-
Arrautzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

**ZUZENKETA ▶**

Azoko egunkarian *Belauntzar bati atxikimendua eskainiz* izenburupean zetorren eskutitza Belauntzako Udaltzaren izenean idatzitakoa zen, eta ez zuen Edurne Arbelegik bakarrik sinatu, HITZAK zioen bezala.

**TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA**

**'ATE IREKIEN EGUNA'**

Maiatzak 18. Orduetia: 15:00etatik 20:00etara

**Instalazioak. Eskaintza akademikoa. Ikastaroak ikusteko eta ezagutzeko aukera**

**Zure etorkizuna ziurtatzen!!!**

Santa Luzia, 17 - Tel.: 943 65 11 47 / 943 65 18 56 - 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)  
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.  
20150 ADUNA  
Tel. **943 69 68 64**  
Faxa: **943 69 68 47**

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 15a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroena **16**

hotzena **13**

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldean



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpidedun egiteko...)

**943 30 43 46**

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



**ANIMO, HAIMAR!**

Dagoeneko gutxi falta da  
AITATXO izateko.  
Zorionak ta muxu pottolo pille!  
Zure bi sorginboak.



**URTE ASKOAN**

Alazne Garmendia Aurkia (Baliarrain).  
Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat  
famili eta lagun guztien partez.



**AMOÑI, ZORIONAK!**

Zure gizonak, alabak, suhiak eta ilobak:  
Leire, Ainara eta Mikel, eta bereziki  
besarkada bero-bero batekin, zure semeak.



**URTE ASKOAN**

Oneka Artola Zabala  
(Alegia). Gaur 2 urte.  
Zorionak potxola!



**URTE ASKOAN**

Heiko Wim Nicu Callens  
Atxaga. 8 urte. Familia  
guztiaren partetik.



**ZORIONAK**

Libe Elizegi Ormazabal (Asteasu).  
Gaur 3 urte. Aita, ama eta lkerren partetik.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Alegia.** Lourdesera egiten duten gaixoen peregrinazioarekin batera, parrokiak autobusa antolatatu du hilaren 21 eta 22rako. Bidaia eta hotela pentsio osoan 115 euro dira.  
**Alkiza.** Antonio Zubiaurre alkate izandakoaren omenez, 10:00etan meza; 12:30ean parkean txistulari, dantzari eta herriko abesbatzaren saioa; Koldobika Jauregik emandako eskulturaren inaugurazioa; herri bazkaria frontoian eta trikiritza 17:00etatik 20:00etara.  
**Belauntza.** Zumaiaiko Zelai talasoterapiara irteera antolatuta du hilaren 28an. 20 euro balio du irteerak.  
**Berrobi.** Hilaren 21eko Pirritx eta Porroben Patata patata ikuskizunerako txartelak salgai udallexean eta Galtzaundin 5 eurotan.  
**Tolosa.** Eskualdeko ataudarrek afaria egingo dute hilaren 27an Fronton jatebexan 20:30ean. Izen-ematea, bertan: 943 65 29 41.  
**Tolosa.** Txobxongilo Antzerkia Haurrentzat idazlan lehiaketa. Irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira C1Ten (Emeterio Arrese 2). 4.000 euroko saria dago.

**Tolosa.** Felix Yarzaren oroimenezko I. Pintura Lehiaketa antolatuta du Txinparta elkarteak pintore tolosarrentzat Alde Zaharrari buruz, gehienez 73x60 cm. Elkartean edo Kultur Etxean eman daiteke izena hilaren 27a baino lehen.

**SAN ISIDRO**

**Gaztelu.** Hamaietakoia, Kontzejun, 11:00etan.  
**Elduain.** Hamaietakoia emango du Udalak, elkartean, 11:00etan.  
**Zizurkil.** Meza, idi probak, aizkolariak, bertsolariak eta trikitalariak eta bazkaria.

**JAIK**

**Ibarra (Izaskun).** Herri kirolak auzotarren eskutik (txingak, aizkora, sega, koxkola...) 12:00etan; herri bazkaria 14:30ean Irazu eta Peñagarikano bertsolariekin batera; Etxabe anaiak trikitalariak 18:30ean; asto lasterketa 19:00etan eta Etxabe anaiak trikitalarien bigarren saioa 19:30ean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** El hundimiento. Gaur, 16:45ean, 19:30ean eta 22:30ean eta bihar, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinema aretoan.



**ZORIONAK**

Karretoko Loentxo eta Bikainbordako Ferminari.  
Zorionak urrezko etzetan. Eskerrik asko eguneroko eginkizun titikiak maitatzen erakustegatik. Seme-alabak.

2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a laguntzaile: **hitza**

**II. Garagardo Festa**

**Jaki tipikoak 18:00etatik aurrera zabalik**  
**20 garagardo mota**  
**+ 5 KALIMOTXO mota aukeran**